

**ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK**  
**FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO**  
**DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

**INDARREAN 2008KO URTARRILAREN 1ETIK**

**(2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARREAN ONARTUA)**

**(G.A.O. 253 ZKIA-2007.12.31)**

# **2008. URTERAKO ANOETAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK**

## **ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN ORDENANTZA FISKALA.**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. Artikulua**

Udal honek, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araueko 14.3 artikulua ematen dion zilegizurari erabilera emanez, ondorengo artikuluan ezartzen diren terminoetan finkatzen du Zerga honen karga tasa.

### **II. GRABAMEN TASA**

#### **2. Artikulua**

- 1.- Hiri ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga tasa ERANSKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratuko da finkatua.
- 2.- Landa ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga tasa, ERANSKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratzen da finkatua.

### **III. OINARRI EZARGARRIA ETA KUOTAK**

#### **3. Artikulua**

- 1.- Hiri Ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Oinarri Ezargarrria, ondasun horien balio katastrala izango da.
- 2.- Landa Ondasunei aplikagarri den Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Oinarri Ezargarrria, erregelamenduz onartutako balio katastrala izango da.
- 3.- Zerga honen zehaztapena aurreko ataletan adierazitako Oinarri Zergagarriei Ordenantza honetako 2 artikuluan bakoitzari dagokion finkatutako karga tasak aplikatuz lortuko da.

## IV. KUDEAKETA ARAUAK

### 4. Artikulua

1.- Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapena Gipuzkoako Foru Diputazioaren gain eskuorde gera daitezke, Udal Batzarrak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan, horretarako hitzarmen egokia izenpetuta izango delarik.

2.- Hartuko den udal erabakia G.A.On emango da argitara, behin onesten denean.

## V. HOBARIAK

### 5. Artikulua

Kuota osoaren zergarengan ondorengo hobariak eskatu ahal izango dira:

a) Obra berriko ondasun higiezinetan edo harekin parekatzen diren eraberriketetan, beti ere interesatuek obrei ekin aurretik hala eskatzen badute. Ondasun higiezin horiek urbanizazio, eraikuntza eta sustapen inmobiliarioko enpresen ihardueraren xede behar dute izan eta beren ibilgetuaren barruan ez egon.

1.- Orokorrean:

- Gehienez %50a lehenengo hiru urtetan zehar.

2.- Kooperatiba Erregimena bidez sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzentzat:

- %80

Hobari hau aplikatu ahal izango da obrak hasi eta hurrengo zergalditik hasita obrak amaitu eta hurrengo zergaldirarte, beti ere bitarte horretan hirigintz edo eraikuntza obrak era edo modu efektiboan burutzen badira, eta inoiz ezin izango da hobaria hiru zergaldi baino gehiagotan lortu.

b) Interesatuek ariketa urteko martxoaren 1aren aurretik eskatuz gero, eta behar bezala justifikatua egon ezker, familia ugariaren titularraren ohizko etxebizitzari dagokion kuota osoaren zergarengan ondorengo hobariak lortu ahal izango dituzte, beti ere familia ugariaren txartela indarrean eduki, etxebizitza jabetzan izan eta familiako kide ezberdinak bertan erroldatuta egon ezker:

- 3 seme-alabako familia ugaria: %50eko hobaria, 35 €tako mugarekin.
- 4 seme-alabako familia ugaria: %60ko hobaria, 42 €tako mugarekin.
- 5 seme-alaba edo gehiagoko familia ugaria: %90eko hobaria, 63 €tako mugarekin.

c) Kuota osoaren %25eko hobaria eskainiko da babes ofizialeko etxebizitza berrietarako eta, dela proiektuan dela erregistroan, haiei lotuta dauden garaje eta trastelekuetarako, beti ere behin betiko kalifikazioa eman ondoren.

Hobari honen aplikazio epea 5 urtetakoa izango da etxebizitzaren lehen erabilerarako lizentzia lortu eta hurrengo zergalditik kontatzen hasita.

Subjektu pasibo berak artikulu honetako b) eta c) ataletako bi hobariak jasotzeko eskubidea izango balu, zergaren kuota osoarengan beherapen gehien jasoko lukeen atala aplikatuko zaio.

#### V. AMAIERAKO XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta Ordenantzaren zati osagarri den Eranskinean dauden karga tasak, Udal Batzarrak Eranskinean adierazten den datan egindako batzarraldian onartu ziren eta indarrean 2008 urteko urtarrilaren 1ean sartuko dira, aldatu edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuz joango direlarik.

## **ERANSKINA**

Batzarraldiaren data: 2007ko azaroaren 14an

- 1 Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa honako da:
  - a) Industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden ondasun hiritarrentzat: %0,3985
  - b) gainerako ondasun hiritarrentzat: %0,1873
- 2 Landalurren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,90

Ondasun higieziari buruzko zergaren Ordenantza Fiskala, Eranskin honetan agertzen den karga tasak osatzen duena, behin-betiko onartuta geratu zen 2007ko abenduaren 31ean.

Anoeta, 2007ko abenduaren 31.

O.E Alkatea,-

Idazkari-Kontuhartzailea,-